ARTEA BIAN

SAN SEBASTIAN ETA FANTASMA

2021/10/15
2022/01/09

ERAKUSKETA
EXPOSICIÓN

LABORATEGIA

OIER IRURETAGOIENA

SAN TELMO MUSEOA

Artea abian ekimenaren bitartez, Kutxa Fundazioak eta San Telmo Museoak laguntza eta babesa eskaini nahi diete, beren ibilbide profesionalaren lehen urteetan egonik, beren obraren aurkezpen monografiko bati heltzeko behar adinako esperientzia duten artistei. Helburu nagusia zera da, artista horiei gune instituzional batean edo museo batean lehen erakusketa indibidual bat egiteko aukera ematea, arte plastikoen eta ikusmen-arteen testuinguruan nabari den premia bati erantzun bat eman nahian, artisten erakusketetarako guneak eta aukerak abian jarriz.

Oier Iruretagoienaren *San Sebastian eta fantasma* erakusketak, izenburuak iradokitzen duen bezala, bi zati ditu: batetik, abiapuntu gisa martiri erromatarraren irudiaren inguruan bildutako lanen multzoa; eta, bestetik, *Fantasma*, lurrean hedatzen den soinuzko esku-hartzea.

San Sebastian arteak askotan irudikatutako santua da, eta erakusketa honekin batera prestatutako argitalpenaren testuan Carmen Pardo Salgadok dioen bezala *"martiriaren gorputzaren errepresentazioan ematen den indarkeriaren estetizazioan, sexuaren, minaren eta heriotzaren anbibalentzia ametitzen da begiesten ari denaren soan. San Sebastianen fantasmak –haren irudiak– biak hartzen ditu bere baitan: bai erlijioaren sukarra eta baita gizon-emakumeen desirak zein ametsak ere".* Hemen aurkezten diren obren kasuan, nabarmentzekoa da materialek prozesuan jasaten duten ageriko indarkeria, santuaren martirioaren lekukotasun ironikoa emanez. Eta San Sebastian santuarekin lotutako lanak Donostian aurkeztearen atzean ere, ironia antzeman daiteke.

Aretoko lurrean, zuzeneko irrati emisio bat zabaltzen duten hamarnaka entzungailuk osatzen dute "Fantasma". Berriro ere Pardo Salgadoren hitzetara joaz, *"Irratia entzutearen berezko ezaugarria da gorputzaren eta ahotsaren dislokazioa; oraingo honetan, ordea, irratiak igortzen duena bereizteko ezintasuna eransten zaio. Hasieratik beretik San Sebastianen figurarekin batera agertu den indarkeriaren estetizazioan tematzen da aretoan barna hedatzen den murmurio apala (...). Haatik, soinu bidezko estetizazioak modu argiagoan erakusten ditu bere zauriak, eta entzumena asetzeko ezintasuna erakusten digu. Belarri-zuloak ez dira estaliko.*

Orain badakigu, entzungailuak jarriz gero, belarriak kaltetuko lizkigukeela soinuaren potentziak. Horren ordez, soinuaren potentziak entzungailuak higatzen ditu poliki-poliki, materiaren narriadura eta sufrimendua inposatuz".

Oier Iruretagoiena
(Errenteria, Gipuzkoa, 1988) musika esperimentalean hasi zen, eta gero beste formatu batzuetara zabaldu du bere lan esparrua, hala nola, eskulturara eta testura. Arte Ederretan lizentziatu zen EHUn 2011n, eta 2018an Bruselako WIELS egoitzen programa osatu zuen. Bilboko Carreras Mugica galerian (2019 eta 2015), Bartzelonako Halfhouse espazioan (2014) eta Gasteizko Montehermoso Kultur Etxean (2011) egin ditu erakusketak, besteak beste. Duela gutxi erakusketa kolektibo hauetan ere parte hartu du: "El sentido de la escultura" Joan Miró Fundazioan (Bartzelona, 2021), "Generación 2020" La Casa Encendidan (Madril, 2020), "Le Petit Cercle Bruxellois" Institut de Carton-en (Brusela, 2019), "Bi Dos Two" Azkuna Zentroan (Bilbo, 2018), "Cale, cale, cale! Caale!!!", Tabakaleran (Donostia, 2017), eta "Otzan" Elba Benítez galerian (Madril, 2016). Bestalde, 2011tik 2020ra Bilboko Le Larraskito Klubeko koordinatzaileetako bat izan zen, eta 2020tik Berria egunkariko zutabegilea da.

Mediante esta iniciativa, Kutxa Fundazioa y San Telmo Museoa pretenden ofrecer apoyo y respaldo a artistas que, encontrándose todavía en los primeros años de su trayectoria profesional, cuentan con la experiencia suficiente para afrontar una presentación monográfica de su obra. El objetivo principal consiste en facilitar la realización de una primera exposición individual en un espacio institucional o museístico. Con ello se da respuesta a una necesidad en el contexto de las artes plásticas y visuales, con la implementación de espacios y oportunidades de exposición para los artistas.

La exposición *San Sebastián y el fantasma*, de Oier Iruretagoiena, se compone, como desde el título se sugiere, de dos partes: un conjunto de obras reunidas en torno a la figura del mártir romano como punto de partida; y "Fantasma", una intervención sonora que se extiende en el suelo.

San Sebastián ha sido un santo representado muchas veces por el arte, y como apunta Carmen Pardo Salgado en el texto de la publicación que acompaña la exposición, "*la estetización de la violencia en la presentación del cuerpo del mártir, admite la ambivalencia del sexo, del dolor y de la muerte que atraviesan la mirada del que contempla turbado. El fantasma de San Sebastián —su imagen—, acoge tanto el fervor divino como el deseo y el sueño de hombres y mujeres".* En el caso de las obras que se presentan aquí, interesa destacar la violencia patente en el proceso de maltrato por el que pasan los materiales, testimoniando irónicamente el martirio del santo. Y también se puede intuir ironía tras el hecho de presentar trabajos relacionados con el santo San Sebastián, en la ciudad de San Sebastián.

En el suelo, "Fantasma" se compone de decenas de auriculares que difunden una emisión radiofónica en directo. Citando de nuevo a Pardo Salgado, *"a la dislocación de la voz y el cuerpo que ya supone la escucha de la radio, se suma ahora la imposibilidad de discernir lo que está sonando. El tenue murmullo que baña la sala persiste en la estetización de la violencia (...). No obstante, la estetización que pasa por lo sonoro evidencia más claramente sus heridas y apunta a la imposibilidad de colmar la escucha. Los agujeros de los oídos no serán cubiertos.*

Ahora sabemos que, si nos pusiéramos los auriculares la potencia sonora nos dañaría los oídos. En su lugar, esta potencia va minando los auriculares lentamente, sometiéndolos al deterioro, al suplicio de la materia."

Oier Iruretagoiena (Errenteria, Gipuzkoa, 1988) empezó su andadura en la música experimental, y posteriormente ha ido abriéndose a otros formatos como la escultura y el texto. Se licenció en Bellas Artes por la EHU-UPV en 2011, y en 2018 completó el programa de residencias WIELS de Bruselas. Ha expuesto individualmente en la galería Carreras Múgica de Bilbao (2019 y 2015), y en el espacio Halfhouse de Barcelona (2014), entre otros. También ha participado recientemente en las siguientes exposiciones colectivas: "El sentido de la escultura" en la Fundació Joan Miró (Barcelona, 2021), "Generación 2020" en La Casa Encendida (Madrid, 2020), "Le Petit Cercle Bruxellois" en Institut de Carton (Bruselas, 2019), "Bi Dos Two" en Azkuna Zentroa (Bilbao, 2018), "Cale, cale, cale! Caale!!!" en Tabakalera (Donostia-San Sebastián, 2017) comisariada por Juan Canela, y "Otzan" en la galería Elba Benítez (Madrid, 2016). También, desde 2011 a 2020 fue uno de los coordinadores del espacio Club Le Larraskito de Bilbao, y desde 2020 es columnista del diario Berria.

JARDUERAK / ACTIVIDADES

Bisita gidatuak / Visitas guiadas
San Sebastian eta fantasma.
Oier Iruretagoiena.
Azaroak 18, osteguna
Jueves, 18 de noviembre
18:00 (eus) + 19:00 (cas)

Dohainik, aurrez izena eman behar da museoaren webgunean.
Gratuitas con reserva de plaza a través de la web del museo.

Hitzaldia / Conferencia
Flechas de amor y dolor: los agujeros de San Sebastián.
Carmen Pardo Salgado
Urriak 28, osteguna
28 de octubre, jueves
19:00 (cas)

Carmen Pardok, Gironako Unibertsitateko irakasleak, Oier Iruretagoienaren obraren inguruko hitzaldia eskainiko du; hain zuzen, bera da Artea Abian proiektuaren protagonista aurten. Erakusketako katalogoa ere aurkeztuko da.

Carmen Pardo, profesora de la Universidad de Gerona, impartirá una conferencia sobre la obra de Oier Iruretagoiena, artista protagonista del proyecto Artea abian, y se presentará el catálogo de la exposición.

Dohainik, aurrez izena eman behar da museoaren webgunean.
Gratuita con reserva de plaza a través de la web del museo.

ORDUTEGIA
Asteartetik igandera
10:00–20:00
Astelehenetan itxita, jaiegunetan zabalik.
LABORATEGIA. SARRERA DOHAINIK

HORARIO
De martes a domingo
10:00–20:00
Lunes cerrado, festivos abierto.
LABORATORIO. ENTRADA GRATUITA

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T. 943 481 580
www.santelmomuseoa.eus
santelmo@donostia.eus
@santelmomuseoa

kutxa FUNDAZIOA

Antolatzaile / Organizan
STM San Telmo Museoa | DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | donostia kultura

Erakunde babesleak / Instituciones socias
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO | Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa | ORAIN GIPUZKOA